

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko irailaren 17a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Elgorriaga • Onddo eta zizen inguruko ekitaldiak egiten ari dira asteotan
Angel Biela • «Iruñetako herri guztia saiatu da Garagardo Besta aitzina ateratzen»

Emakumeen

Iruñean paseoan



• INAKI VERGARA

'Ibilbideak emakumeen hirian barna' liburutxoari jarraituz, Iruñeko karriketatik abiatu gara hiria ezagutzeko. Liburutxoak, eta honek biltzen dituen sei ibilbideek Iruñeko emakumeek egin zituztenak dituzte mintzagai. Gizon handien historiaren aitzinean, emakumeen istorioak eta Iruñearen historia ttipia ezagutzeko modu bat da ibilbideak egitea. Edonork egin ditzake lasaitasunez eta patxadaz goiz bateko paseoan.

Elgorriaga ●

Onddoak herriarentzat

Ziza eta onddoak hizpidetzat hartuta, makina bat ekitaldi egiten ari dira astebururo

Onddo garaian sartu ahala, gero eta jende gehiago joaten da mendira horien bila. Elgorriagan, onddoa hizpide hartuta, mota guztietako ekitaldiak egiten dira astebururo, urriaren 3a bitarte.



Etzi, Arozarenaren omenezko II. Onddo eta Ziza Txapelketa egiten dute Elgorriagan

ARTXIBOKOA

ELGORRIAGAN DAGO ONDDO eta Zizen Kofradia, eta horrek bultzatuta, onddoaren inguruko ezagutza hedatzeko zenbait ekitaldi antolatu dira herrian bertan. Onddoen Bidea deiturikoan argazki rallya egin zuten orain bi asteburu, eta haurrentzat jokoak eta musika ere izan ziren onddoak aitzakia hartuta. Joan den astean, berriz, oinezkoendako eta zaldiendako ibilbideak egin zituzten, eta turismoa eta ekologia izan zuten mintzagai solasaldi batean. Haurrentzat, berriz, marrazki jardunaldia izan zen, betiere onddoen gaiaren inguruan.

Igande honetan, etzi, Arozarenaren omenezko II. Onddo eta Ziza Txapelketa jokatu da, eta Nafarroako Kofradien arteko senidetzea egiten da eguerdiko 12:00etan. Or-

du erdi geroago, ekologia eta landa ingurua izanen dute solasgaia. Txarangak karririk alaituko ditu, eta herri bazkaria izanen da 14:00etan. Arratsaldean, margo erakusketa izanen da.

Urriaren 2an, argazki rallyko lanak ikusgai paratuko dira, zaldi gainean ibiltzeko parada izanen da eta onddo kazolen lehiaketa jokatu da. Gero, herri afarian —nahi duten guztiak joan ahal izango

dira— prestatutako onddoak jateko modua izango da. Egundua, hala ere, igandea izanen da, urriaren 3a. Kofradia kide berriak izendatuko dira, eta enkantea egiten da. Txaranga, abesbatza eta dantzaldia izanen dira Elgorriaga herrian.

Arte erakusketa ere bai

Ekitaldi horietaz gain, joan den abuztuaz geroztik era-

kusketa hirukoitz bat zabalik dago, urriaren 4a arte hain zuzen ere. Batetik, Juan Carlos Pikabea lesakarraren margolanak zintzilikatu dituzte; bertalalde, Igantziko Iruglas lantegian eskuz egindako kristal gaineko grabatuak ikus daitezke, eta, azkenik, Martin Ibarrek egindako burdinazko lanak paratu dituzte.

→ Jon Abril

Hiriberri

●
Aezkoako eguna ospatuko dute igandean

AEZKOA KULTURA ELKARTEak antolatuta XII. Aezkoako Eguna ospatuko dute igandean Hiriberrin. Ekitaldiak ortziraletan hasiko dira. 20:30etan Jose Ulibarrenak Auñamendiko gogaia izenburuko hitzaldia emango du eskuletan. Bi ordu geroago bertso afaria izanen da Alaitze tabernan Xabier Amuriza eta Unai Iturriaga bertsolarien eskutik. Euskal Herriko sartaldea eta sartaldea elkar ezagutzeko aukera ezin hobea izanen da afaria.

Aezkoako Egunaren bezperan, pilota partidak izanen dira Irati eskuz binakako II txapelketa dela eta. Gaueko 00:30etan Izurri Berria eta Trikižio taldeen kontzertua.

Igandeko ekitaldiak goizean goiz hasiko dira, 08:30etan, ardi latxa, behigorri eta burgete zaldien Azienda lehiaketarekin. 10:00etan karrika dantzak izanen dira Aezkoako akordeoilariekin, eta 10:30etan, Irati eta Bortuetako gazta txapelketa. Orreagako abesbatzaren kontzertua, Hiriberriko Silvia Arreseren akordeoi emanaldia, Galdakaoko Andra Mari dantza taldearen emanaldia, herri bazkaria eta haurrendako antzerkiak bete dute eguna. Aurtengo Aezkoako Eguna Sakanako trikitalarien dantzaldiarekin akituko da 20:00etan.

→ Daniel Urrutia

zubian barna

BINGEN AMADOZ



LBada egiazko toki bat bakarrik amets goxoetan eta Walt Disneyren fantasia zoragarrietan kokatzen nuena. Harrigarri bada ere, zenbait aldiz errealitate bihurtzen dira ametsak.

Bertan palmondoek hondar txuria muxukatzten dute eta batzuetan baita itsasoa ere.

Hondartza luze, zabala eta bakartia da, eta oso jende gutxiren oinatzak jasaten ditu egunean. Are gutxiago gauez.

Karramarro gorriak olatuetatik gertu zabalduak zuloetan sartzen dira gizakiaren hurbiltasuna sumatu orduko. Larrialdiak bultzaturik ez dute beti lehenbizikoan bere zuloa zein

den behar bezala asmatzen baina ezkutalekua beti aurkitzen dute goiz ala berandu.

Buru hezurak arrantzaleek hautsirrik, bertara joaten dira dortokak hiltzera.

Garcia Marquezek sarritan aipatzen dituen gallinazoez, bele beltz amerikar handiek, festa ederra egiten dute haiekin.

Maskorak, itsas trikuak. Haiekin oztopatzten dira noizbehinka gure hanka bilutsiak.

Arrantzaleen txalupak han-hemenka ereinda daude itsaso zabalean.

Ura eta zerua elkartzen diren mugetan baleak ageri dira askotan;

Honuntzago, berriz, jendartean gustura dabilzan izurde begikoak.

Monpicheko biztanleren bat edo bestek, asto bat aurrean daramala, oinutsik egiten du han urrunean geratzen den herrixkaren eta argindarra duen zibilizazioaren arteko bidea.

la hondartzaraino iristen diren itsas-adarren moduko esteroetan lotuta, txalupak, eta bamean arraunak...

Haizeak isilasuna urratzen eta etxolaren atarian hamaka kulunkan.

Perfekziorik ez dago, noski. Eltxoek hozka egiten dute temati, eta paradisu hori oso urrun dago guregandik.

Paradisua

Lizarra •

Jose Gutierrez Solanaren margolan zorrotzak

Urriaren 31a arte margolariaren erakusketa Gustavo de Maeztu museoan

Mende honetako margolari gorenetak baten margolanak ikus daitezke aurreneko aldiz Nafarroan. Gustavo de Maeztu museoak Jose Gutierrez Solana artistaren sei olio, lau litografia eta hogei bortz akuarela bildu ditu urriaren 31 arte.



Jose Gutierrez Solanaren *Mascaras bailando del brazo koadroa* •

JOSE GUTIERREZ SOLANA MADRIDarra margolaria izan zen batez ere, baina baita marrazkilaria, eskultorea, idazlea eta pentsalaria ere. Arte garaikideko artista berezia izan zen, artista gorena, bitxia, uharte bat abangoardiako mugimenduen barnean. 1917. urtean jaio zen, eta Gustavo de Maeztu eta Zuloaga margolarien garaikidea izan zen. Zuloagak bezalaxe,

Gutierrez Solanak 1898. urteko margoaren inguruko kezka agertu zuen bere bizitza osoan. Hala, bere lanetan kritika zorrotzak egiten zizkion garai hartako bizimoduari. Gutierrez Solanak espainiar tradi-

zioaren eragina jaso zuen batez ere eta, beraz, bere margoa barrokoa da, Goyaren margo beltzaren antzekoa», azaldu du Camino Paredesek, Gustavo de Maeztu museoko zuzendariak. Gutierrez Solana mar-

golariaren lana iluna da, kritiko, zorrotza eta negatiboa.

Jose Gutierrez Solanak bere margoetan landu zituen gaiak heriotza, erlijioa, jaia eta emakumea izan ziren. Olioetan zein marrazkietan agertzen zituen aipatu gaiak, eta denak bere bizitzaren ondorio izan ziren. Bederatzi anai-arrebako sendi aberats batean jaio zen, Madrilén, 1917. urtean. Margolariak erabat markatu zuten zortzi bizipen izan, eta hortik dator kio ezkortasuna. Maria Jesus Albiñana komisarioaren hitzetan, haurtzaroan aita eta arreba jaio berri bat hil zitzaizkion.

Ez zen oso ugaria izan Jose Gutierrez Solanaren ekoizpen artistikoa. Orotara, haren 400 bat olio ezagutzen dira. Halaber, 200 marrazki, 30 grabatu, 7 litografia eta eskultura bakar bat egin zituen 57 urteren buruan. Ekoizpen literarioa ere aipatzekoa da. Sei liburu eta 12 bat artikulu idatzi zituen. Liburuen artean goraiatzekoa da *La España negra*; obra horrek margolariaren garai ezagutzeko eta ulertzeko aukera ematen du.

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Urruñako ikastola berria

Urruñako ikastola berriari buruzko albisteak dakar **Herria** astekariko azken zenbakiak: «Bederatzi hilabete iraun du etxe berriaren altxatzeak Urruñaren erdi erdian, pilota plaza, Iturbidea kirol gela eta beste bi eskolak dituela auzo. Denbora piska bat eman dute horren eraikitzen, hori ikastola pollita nahi izan dutelako egin, egiten-eta. Aurtengo 25 haurrek lañoki errezibitzen ahalko dituzte beste hainbeste ere egoitza berean».

«Alemanian barna sustengua piztu ondoan, hegoaldeetik etorri da sustengu hori nasaiki. Hainbestera non 400 li-

beretan saltzen ezarri 1.000 harriak baino kasik bi aldiz gehiago, 1.800 pasasa, salduak izan baitira! Lau herri agertu dira elkartasun honen aintzinean: Arrasate, Zaldibia, Usurbil eta Segura. Urruñako ikastola pospolak piztu ditu kantuak, eskeak, ofizio askotako laguntzaileak Gipuzkoan barna. Estreinatze hortan ziren besteak beste Jean Haritschelhar euskaltzain-burua, Jakes Aberri Miarrizteko auzapez ordea, Bera eta Usurbilgo auzapezak. Urruñako herriak pesta ederrak izan ditu aurten eta ikastola berriarekin esperantzak piztu dizkio euskarari».

Ttipi-tapa hamabostekariak, bestalde, Etxalarren auzoetako baserriak eta bideak agertzen dituzten mapak paratu dituztela jaso du bere azken zenbakian, herri horri eskainitako tartean: «Aspalditik prestatzen ari ziren mapak, abuzturako paratu ditu Udalak. Auzo bakoitzeko baserriak, bideak eta erreka nagusiak ikusten ahal dira haietan. Horrela, edozeinek, mediku, turista, edo nornahi dela, egiten ahal du edozein baserriarako bidea. Zazpi mapa dira oraingoz, baina bertze toki batzuetan ere paratuko dira. Igantzin eta Beran ere ikusten ahal dira horrelakoak».



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Milurteko Reich-a

Hola. Barkatu Telenavarrako seinalean sartu baldin banaiz. Interferentzia honen zergatiaren larritasuna azalduko dizuet.

Berlineko Alexanderplatz-eko banku batean eserita, eskuzko ordenagailuan sarturik ditudan datu baseak aztertzen ari naiz eta, krixtojesus, begien aurrean gero eta argiago agertzen zait dena, orain ez dut inongo dudarik egiten, bunker horretan aurkitutako azken paperek dagoneko zirkulua osatu dela adierazten didate, eta errealitatea gordina da, oso... gordina, adiskideok, errealitatea... nafarrik plan maltzur eta luze baten ondorioa garelara da! Baina egin dezagun atzera, eta saia gaituzen gauzak tajuz adierazten.

Orain dela hiru egun nire Berlinen kontaktuak mezu elektronikoko bat bidali zidan. Bertan Berlinen metro obretan egindako aurkikuntza baten berri zehatzak irakurri ahal izan nituen; aspalditik espero nuen berria. Hura irakurri eta hurrengo egunerako hemen nintzen, kasko horia buruan eta linterna bat eskuetan Bigarren Gerrateko lur azpiko bunkerreko paretan ilun hari begira. Lur azpian 16 metrora, foku elektrikoan argipean txunditurik gelditu nintzen. Paretan Nafarroako armarría zizelaturik agertzen baitzen; gure armarría adiskideok, 1943an zizelaturikoa! Txan txarar txan txarar!!! Nire zain zeuden langileek paretan zulo bat egin zutenerako ordu luze bat igaro zen, gero... Gaiztakeriaren Tutankamon baten hilobian sartzea bezalatsu izan zen. Artxibategi artean eta lurrean sakabanaturik giza hezurduak agertzen ziren SS-ko uniforme ustelduez jantzirik, paretetan nazien odolezko ikurrak zintzilataturik zeuden, eta beraien artean, brontze, burdin nahiz zilarretan egindako Nafarroako kateak! Txararrrrrrr! 2000. urteko plana izena zuen artxibategia zabaldu genuen gero: Nafarroa, Nafarroa, Nafarroa! Leku guztietatik agertzen zen hitza! Txosten eta emendakin haien sinadurak irakurri nituen! Adolf Hitler! Han irakurri nuena hitz bitan azalduko dizuet, kontua da Volkswagoneko fabrika... el... baina zer!, nortzuk zarete zuek!, el... bueltatu ordenagailuaaargh!, ez!, kupida!, ez dut ezer esango!, flop!, flop!... krrrrrrrr! (Perdonen esta interrupción. TVE) •

Ibilaldiak emakumeen Iruñean barna



Egungo Gaztelu plazan gaztelua eraiki zutenean, emakumeek ere parte hartu zuten zamalanak eginez. Sagrario Aleman euskaltzaleak uste du hizkuntzaren transmisioan emakumeek eta gizonezkoek paper bera bete behar dutela.

• INAKI VERGARA

Sei ibilbide biltzen dituen liburutxoak karrikaratu dute, Iruñeko emakumeen historia ttipia ezagutzeko

Pompaelo erromatarra, Erdi Aroko hiria, Judutegia, Katedraleko emakumeak, Hiri modernoa eta Egungo Iruñea izeneko sei ibilaldi biltzen ditu Ibilbideak emakumeen hirian barna izenburuko liburutxo batek. Iruñeko makina bat emakumeren historia ezagutzeko parada eskaintzen digu liburutxoak, eurak jaio, bizi, lan egin edo hil ziren lekuetatik paseatuz.

JOSEP RIPOLL, VALENTZIARAKO INFORMATIKOA eta behin-behineko erromesa, Iruñetik pasatu da Santiagorako bidean. Turistendako informazio bulegora joan da mapa bat eskuratzearren, eta hantxe ikusi du, hainbat katalogo itxurosoaren azpian, Ibilbideak emakumeen hirian barna izenburuko liburutxo bat. Iruñeko Udaleko Emakumearen Zinegotziak argitaratu du, eta hiri barneko sei ibilbide biltzen ditu. Josepi otu zaio aukera polita izan daitekeela Iruñea ezagutzeko. Historia ezagutzeko beste modu bat dela pentsatu du Josepek.

Pompaelo erromatarra

Liburutxoak proposatzen dion lehen ibilbideak Pompaelo erromatarreko karririkak zeharkatzen ditu. Katedral aurrerako plazan hasten da, Cardus (Dormitaleria) eta Decumanus (Curia) kaleak elkartzeko ziren lekuan. Aurrerago Mañueta kalea dago, Erdi Aroan Bainudinda izena hartu zuelarik. Curia kalearen bukaeran (16 eta 18 zenbakietan) mosaiko bat aurkitu zuten zeinak adierazten duen inguru horretan bainuak eta termak zeudela. Leku publiko horietan emakume anitz biltzen zen, eta, askotan, prostituzio txak ere baziren.

Ibilbide honetan Josepek ezin izan du bisitatu gabe utzi Nafarroako Museoa, aukera ederra eskaintzen baitu hiliarriak eta emakumeek erabiltzen zituzten tresnak (orrazak, eraztunak, pisuak, kandelak...) ikusteko. Han Maria Angeles Mezkiriz topatu du, Nafarroako Museoko zuzendari ohia. Emakumeek garai hartako Iruñean betetzen zuten paperari buruz galdegin dio Josepek. Mezkirizek erran dio zaila dela zehaztasunak ematea. «Badakigu Iruñeko emakume bat Tarracon (Tarragona) ibili zela apaiz emakume bezala, hango inskripzio batek horixe baitio. Hortaz, ondoriozta dezakegu bazirela emakume garrantzitsuak, nolabaiteko maila bat zuten emakumeak. Horixe da emakume zehatz baten inguruko aipamen bakarra». Mezkiriz eskerrak eman eta Gaztelu plazara abiatu da Josep, han hasten baita bigarren ibilbidea.

Erdi Aroko hiria

Erdi Aroan eleanitza zen Iruñea, euskara, okzitaniera, latina, erromantzea eta hebraiera entzun baitzitezkeen karrিকা haitan. Gaztelu plaza jaberik gabeko lurra izan zen hasieran, eta elkarren kontra ari ziren hiru burgoetako bizilagunen liskar tokia izan zen. Gero pasako zen hiriaren bihotza izatera. 1308 eta 1310 urte bitartean gaztelua eraiki zuten, eta eraikitze lanetan emakumeak ere aritu ziren, taldeka, zamalanak egiten.

Egungo Gaztelu plazan, kioskoaren parean, emakume batekin egin du topo Josepek.

Curia kalearen bukaeran (16 eta 18 zenbakietan) mosaiko bat aurkitu. Horrek gazten du inguruetan bainuak eta termak zeudela. Leku publiko horietan emakume anitz biltzen, eta askotan, prostituzio txak ere baziren.

Sagrario Aleman izena duela erran dio, eta Arturo Campion euskaltegiaren euskara irakasten duela. Josep valentziarrak badaki zer den hizkuntza gutxitu batean bizitzen saiatzea, eta Alemani galdetu dio zernolako papera bete dezaketen emakumeek hizkuntzaren transmisioan. «Nire ustez», erantzun dio, «paper bera bete behar dute gizonezko zein emakumezkoek. Hala ere, emakumea, oro har, gehiago ari da euskararen transmisio horretan irakaskuntzan. Eta, egun, irakaskuntza biderik sendoa da euskararen transmisioan. Guri dagokigu euskararen transmisioarek izatea, baina baita gizonezkoek ere».

Euskaltzalea euskaltegirako bidean utzi eta Josep Txapitela, Mercaderes eta Curia karriketaren barrera abiatu da, eta berriz ere Katedraleko plazara heldu. Han San Migelen ospitalea dago, emakume erromesek eta emakume txiro edo gaixoei ostatu emateko sortu zen hiriko lehen ospitalea.

Handik hurbil, Nafarroako Artxibategi Nagusia izan den Errege jauregia ikusi du

Josepek. Trastamarako Leonor eta Karlos III.ak zaharberri zuten lehendabizikoz. Leonorrek Iruñeko arotz bati 22 libera, 2 soldada eta 2 diru ordaindu zizkion jauregian bainera bat paratzeagatik. Emakume bat arduratzen zen lorategiak zaintzeaz, Buixiko Johana, eta beste emakume batek, Maria Lopez de Oriak, jauregiko lorategiko fruta erosten zuten.

Judutegia

1498 urtean kanporatu zituzten arte, judutarren ghettoa izan zena bisitatu du ondoren Josepek. Merced kalean, Alcaçeria dinda zenekoan, merkataritza jarduerak handia izan omen zen, eta emakume judutarrek garrantzi nabarmena izan zuten horretan. Erraterako, Dueña Encave hiriko mailegu-emaile handienetarikoa bat izan zen 1350 eta 1365 urteen artean. Handik hurbil, Labriteko Aldapa kalean, Manoli, Juli eta Mari ahizpen Hartza jatetxea dago. Josepek entzuna du urteetan irabazitako izen onari eusten diotela egun ere, eta sukaldian emakumezkoek

primerakoak direla frogatzen dutela egunero. Josep ez da jatetxean sartu, goizegi baita bazkaltzeko.

Katedraleko emakumeak

Katedralean sartu da Josep, eraikin erlijioso horren barnetik abiatzen baita laugarren ibilbidea. Katedraleko irudi guzien artean emakumeak non dauden aurkitzea proposatzen dio liburutxoak Josepi. Dontzeila eta adarbakarraren mitoa erraz aurkitu du jangelako pulpitoaren beheko errepisan irudikatuturik. Hiru eszenatoko leienda horrek kontatzen du dontzeila batek gainditu behar zuten frogara gogorra ezkontzeko eta emakume ondratua izateko.

Leonor de Trastamararen hilobia ere ikusgai dago aldare nagusiaren aitzinean. 1420an Johan Lomek egin zuen erretratuak ez omen du Leonoren antza handirik. Leonorrek zernolako itxura ote zuten asmatu nahian atera da katedraletik Josep.

Hiri modernoa

Nabarreriarako plazara joan da Valentziako informatikoa. Iturri ondoan zegoen emakume edadetu bati ordua galdetu dio solasalditxo bat hasteko aitzakia moduan. Mari Kruz Ziga da, Javier Ziga margolari entzute-suaren eta Eulalia Ariztiaren alabetako bat. Plaza horretako etxe batean jaio zen bere aita, eta ondoko beste batean bizi izan ziren. «Gerra garaian, frankisten zigorraren beldur ziren anitzen babesleku izan zen gure etxea», azaldu dio Mari Kruzek. «Jende nazionalista zen, Bilbo eta Donostiakoak asko, ez zuten dirurik, eta guk jatekoa banatzen genuen». Jazarpena jasaten zuten jendearen hotel klandestinoa zen zigatzen Nabarreriarako etxea. «Ama etxeokoandrea zenez, guziena ohea eta janaria prestatzen zuten. Nire ama borrokalaria zen, gertatzen zen, nire aita ez bezala. Aita nazionalista zen bai, baina baita bohemioa eta idealista ere».

Egungo Iruñea

San Frantzisko plazara heldu da Josep egungo Iruñeari buruzko kapitulu irakurtzen ari zelarik. Izen bereko karrikatik takonera parkera heldu da Josep.

Josepek ere leku horretan emanen dio bukaera bere ibilaldiari. Iruñetik ateratzeko bide egokienari buruz galdetu dio neska gazte bati. Gazteak Beatriz Martxuetak izena du, eta Nafarroako Gazte Kontseiluko lehendakaria da. Pertsonarik aproposena da Josepi emakumeek egungo eta geroko Iruñean bete dezaketen paperari buruz hitz egiteko. Martxuetak uste du emakumeak gizonak bete dezakeen paper bera bete dezakeela, eta alderantziz. «Paper bera bete dezake baldin eta gizarteak baldintzak jartzen baditu emakumeak bere ahalmenarekin leku horietara heltzeko. Baina gizarteak egun ez ditu kondizio horiek betetzeko». Josepek baietz erran dio, bide luzea dagoela egiteko, eta aitzina jarraitu du Nikona bizkar zorroan gordez.

→ Asier Azpilikueta



Mari Kruz Ziga Nabarreriarako plazan bizi izan zena gerra zibil garaian. «Ama etxeokoandrea zenez, guziena ohea eta janaria prestatzen zuten han ezkatzen zirene», erran du Mari Kruzek.

• INAKI VERGARA

Iruñea ezagutzeko modu praktikoa

Iruñeko Udaleko Emakumearen Zinegotziak iragan urtean argitaratu zuen Ellas. 'Las mujeres en la historia de Pamplona' liburua (Emakumeak Iruñeko historian), IPES elkarteak ikerkuntza taldeak egin zuen. Orain liburu horren testuak moldatu egin dituzte Ibilbideak emakumeen hirian barna liburutxoak karrikaratzeko. Liburutxoak euskaraz eta gaztelaniaz idatzirik dago, eta sei ibilaldi proposatzen ditu emakumeek Iruñean historia ttikian bete duten papera ezagutzeko. Ana Diez de Ure egileetarikoa batek azaldu duenez, liburutxoak gauza praktikoa da. «Antzinatek gaur egun gertatu direnak modu praktikoa ezagutzeko atera dugu liburutxoak». Diez de Urearen aburuz, liburutxoak edonori zuzendurik dago. «Interesgarria izan daiteke hemengo jendearantz, baina halaber kanpotarret begira egina dago, edozeinek irakurri eta ibilbideak egin ditzake, baita haurrek ere». Liburutxoak eskuratu nahi duenak Emakumearen Zinegotzira jo dezake (Zapateria, 40-4) edo 948-420532 telefonora deitu.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Esteban Obanos, euskal idazle iruñarra

Iruñean XIX. mende hasierakoetan jaioa, Esteban Obanos Euskara elkartearen lehenbiziko lehendakaria izan zelako zaigu ezagun oro har; alta, orduko Nafarroan zirakien bitzta kulturalan gora asko egiten zuen gizona bagenuen.



Obanos lizentziaduna — berauk sinatu gisara — apaiza zitzaigun; zuzenbide kanonikoa Salamančan eta Oñatin ikasi zuen, bigarren horretan ere kalonje izan zelarik, eta Iruñeko apezpikutzako fiskala arizan zen 1830.ean eta 1847.ean. Historiaren Akademiaren kidea zela aprobetxatuz, Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Batzordean sartu zen 1867.ean; handik denbora batera, 1874.eko urtarrilaren 10ean zendu zen Pablo Iñarregiren posturako izendatu zuten, Batzordearen lehendakariorde hain zuzen, eta zeregin hartan 1888.ean Iruñean hil zen arte-raino iraun zigun. Monumentu-aren Batzordeak espainiar estatu osoan eratu ziren, 1844.eko ekainaren 13an horretarako dela egiten zuen Erret Dekretua onartu zenetik; Nafarroakoa berehalakoan osatu zen urte bereko uztailean, Mariano Martínez de Morentin diputadua eta Yanguas y Miranda aldundiko idazkariaren eskutik; Batzordearen lana 1936.eko gerratea iritsi arte luzatu zen, egin zituen lanen artean ozenenatarikoa argitara eman Boletina izan zela — 1895.ean, 1910-1928 eta 1934-1936 bitartean —.

Euskara Elkartearen sortzeko erabakia 1877.eko urriaren 23an hartu zuten Iturralde y Suiten etxean bildutako hamahiru pertsonen, tartean ere Esteban Obanos zegoela. Egia esan, Elkarre berriaren bazkide gehienak Monumentu Batzordean zeuden berberak ziren, eta, hortaz, bi taldeen artean alde haundirik ez zegoen. Euskara Elkartearen batzarrak Monumentu Batzordeak egotzta



zuen Comptoseko ganbaran berean egin ohi zirela; hantxe eginiko lehenbiziko bilkuran, bada, aukeratu zuten Esteban Obanos elkarre-buru. Horretan eta Elkarrearen estatutuetan jasotzen zen bezala, sei hilabete baizik ez zuen iraun, karguak urte erdiro berritzen baitziren; bere ondotik ardura bera betetzeko Salvador Castilla izendatu zuten; edozein modutan, Obanosek ez zuen baikorregi utzi bere postua, zeuden ballabideendako lan filuse eta apala egin baitzen: «El obstáculo principal con que se ha tropezado ha sido la desidia, la apatía de nuestro carácter, más propio para el batallar de los campos, que para la lucha tranquila y reposada de las ideas». Ezezkor mintzatuagatik, ez zion utzi baina Elkarrean zegoen lana egiteari, eta 1879.eko urtarrilaren historia, etnografia, arte eta lege gintzakoa zen 2. sailaren arduradun egin zuten.

Gutxi idatzi zuen Obanosek Elkarrearen paperean, lau bat kolaborazio labur osotara, lehenengo hirurak 1878.eko lehenbiziko alekian berean, eta hondarrek 1881.eko alekian. Estreinakoa izan zen, bestalde, erderaz ateratako bakarra, *De la antigua Vasconia y sus límites*, aitzineko euskaldunel eta Nafarroako sorrerari buruzkoak plazaratzeko paper undatsa. *Udaberriaren edertasuna: gucia zucentzen duenaren arrasgo miragarria*, berriz, euskarazko testu literarioa dugu, bere itzulpenarekin, 1888.eko *Euskal Erria*-n berriro ere aterazena: «Sartu gara udaberri edo primaderaco sasoñ arin eta ederrean: dagoneko adiarazten du bere cutsu gozagarría lurraren gañean vici diren izate gucietan: oc ematen dacute Guziadezaque-naren eguite miragarriac atseguin andiarequin betusetzeco eta miresteco bide berri bab». Eta 1878.eko lehenbiziko zenbaki honetan ere *Condaira edo conuá euscararén izcuntzat* izenburuko ipuin laburra elki zen: «Nafarroaco erri batean bizitzan gui-


zon batéc, onratia, aberatsa eta sentiera onecuac. Guizon aú juancen eizera, zuen bada amodioa obetandia edo cabala artaraco. Eta allegaturic baserri vatearen aterá, asco bararriéc ciren bada inguru ayetan eta opatuzuen berean ango Echecho-Andrea, ceren izen cena Mari Juan».

Obanosek *Euskara* aldizkarian atera zuen laugarren eta azken kolaborazioa 1881.eko genuen; hartan, Orreaga izenaren etimologiaz ihardun zigun aldizkariaren zuzendariari Igorri gutunaren bitartez, Bonapartek hobetsi *Orreaga* toponimoa, hau da, *ipuru* edo *orre* dagoen tokia adieraziko lukeena, baztertu zigun, Yanguasi jarraikiz hango benetako izena Oiharria edo Goerria zela proposatzeko, hango ezaugarri topografikoekin askoz ere akortago legoekena. Guttun hau ber urteko *Euskal Erria*-n atera zen. Ez zuen Bonapartek Obanosen guttuna gogo onez hartu, eta urte berean erantzuna helarazi zion aldizkariaren zuzendariari, non aski argi zioen Obanosen ekarpena ez zela etortzen ezertan ere *Orreaga* izenaren etimologia argitzera.

Hil berri zegoela, *Euskal Erria*-koek *Memorable alocución* izenburuko atera zuten, Iruñeko Kamiñoko Ama Birjina ezarri zeneko mendeurrena zela eta bertaratu erromes ultzamarrei Obanosek zuzenduriko prediku laburra hain zuzen: «Nere kristabak: baño gutzís gañera Ulzama-ko eritarri edo an bizi direnak: gutziei mill esker zergatik ikusidut gozo eta konsueloreki nola geyenak beren abade eta alkate jaunakereki etorri dire Iruñera peregrinazioan garaitzen bide luzeko nekeak eta bere asko sufrimentu». Berrikiago, Obanosen *Vieja crónica sobre San Fermín* izeneko izkribua atera zen *Pregón* aldizkariako 104. zenbakian, Sanferminak aitzaki 1970.eko uztaile aldeko alean hain zuzen, non Amiens apezpikutzako apaiz batek galdatutakoari erantzuteko, 1854.ean igorri itaun zerrendari ihardespén segida jasotzen den.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Oinez Urkamendin

ZERUKO JAINKO GUZTEN haserrea lurrera hustu zenean, zimiztak jota arrailatutako arbol madarikatu batek iradoki zuen kontua, erromatarren *Arbor Infelix* zelakoa, baina, lur zeken, lur gogor, lur harrizu, lur astun, lur nekagarri, lur gorri, lur lehor, lur basitu, lur beltz, lur amoragarri, lur lur madarikatu eta dohakabe honen gainean zuhaitz adar bat ikusi zutenetik, urkabea prest zeukan gizonak, munduan zutik ibiltzez aspertu zenerako.

Handik aurrera, oihan sarriko lur basati honetan, nonahi ikusiko zen gizonaren oin pareta, moldegaiztoko arbol barkatu eta adarrokoren batetik zintzililik, lurrean harat honat alfer ibilian nekatu eta erretiro hartu ondoren, jubileoan bezala haize boladen ariora dilindan, begi eta min gabe, bele eta belenabar karrankariek urratu eta zitzigabetua, hezur eta azal eguzkiak beltzez disekatu eta inoizka euritan dutxatua.

Eta harritu egin zaio sendea. Horra gizon oinutsetan zutitua bere oinuts zintzilikatuei begira; ez du beste ispilurik, ez beste sinesterik; oina-zea noizbait oinetatik sortu zuela dirudi euskaldunak. Sarri oihartu zen esklabu lez erabiltzen zituela bere oinak, eta halako morrontzarik guti eza gutzen zela esklabutzaen historian, harrokeria erakusteko zutik jarri zenez gero, oinek gorputzaren pisu guzia jasan beharko zutela egunik egun.

Bai, jende asko gara, ideiak bakan; denek pentsatzen dugu antzera, arrunt aisa hartzen edo lapurtzen dizkiogu ideiak elkarri. Halabaina, inork oina azpian hartzen badit, oina-zea nik bakarrik sentitzen dut. Nitasunaren oina ez da pentsamendua, giza sendimendurik funtsezkoena sofri-mendua da. Honatx, agian zergatik oinak askatuz bere burua lotu zuen aurren urkatuak.

Baina gero oina-zearen inbentoreak eta merkatariak

etorri ziren, eta haragizko oina-ze partikular hura, ideia edo pentsamendu publiko arrunt bihurtu zen. Oina-zearen zere- monia publikoan urtu zen oina-ze partikularra. Orduz geroztik nork bere burua urkatu eta oinak munduarekiko esklabutzatik libratzea delitu bihurtu zen. Erregeak edo ha- ren ordeko jauntxoaren batek aginduko zuen non, nor eta nola urkatu. Jee!

Nork ez ditu Urkatoki, Urka- mendi edo gisako lekuizenik gure herri inguruotan? Ordu- ko zainak dituzte. Larremuino edo bidagurutze jakinetan eraiki ohi ziren, ahal zen jen- derik gehienaren bistara eta pasabidera. Fernando Vide- gainek ere *Crónica negra* medie- val del reino de Navarra. Malhechores y Ajusticiamientos liburuan bost aipatzen di- tu: 1294an «*III maderas com- pradas por hacer la forca en Ri- baforada*», 1344an «*por hacer de nuevo una forca en Ahez- quoa para enforcar a Azeari de Arue*», gaur arte.

Urkatokiak, hiru zutoi, bi ohol trabeska eta erdian urka- bihur txar bat besterik izaten ez zutenak, batzutan harrizko pareta batekin inguratzen zi- ren, «*por razon que los perros derivaban et comían los cuer- pos de los hombres enforcados*» edota errukiz ahaidekoren ba- tek «*los furtasen o escolgasen*» bildurrez. Jee!

Delitu haundiskoa bazuen, bi oinak mando zarren baten isatsari lotu eta buruz atzera arrastan kalez kale erabili ondoren, eramanen zuten urkamendira, «*a son de tronpe- ta y voz de pregonero que publique el delito*». Eta jakina: iazko iraultzailea izanen dugu aurtengo urkatzaile.

Zeremonia bukatu eta has- mantan naiz atzera. Begira buru horri, begira oin horiei. Gizadia deneko kartzelan, egunko urkabe horizontalean, kolgauta eseri doan tximinoa dirudi jendeak, euskaldunok endemas, buruz oin egiteko zorian. Jee!!

Ziria

• Motxorrosolo •

Autokritika

ARDURA, ARDURAK HARTZEAK KONTRAESANAREN ERE- MURA GA-ramatza. Behin eta berriro besteari leporatu izan dioguna, gure ekinbidez aurrera eramana. Alor berdi- nak goldatzen ari gara. Ardurak ardura hartu behar dira, eta autokritika osasungarria da oso.

Angel Biela

Iruritako Garagardo Bestaren antolatzailea

«Herri osoa saiatu da Garagardo Besta aitzina ateratzen»

Bihar egingen da Iruritako Garagardo Bestaren seigarren aldia. Angel Biela antolatzaileetako bat dugu. Aurtengo bestan herri guziak lagundu duela erran du Bielak, kultur etxe bat eraikitzeko dirua behar dute eta.

GARAGARDO BESTA SORTU zenetik dago Angel Biela antolakuntza lanetan murgildurik. Ez du protagonismorik nahi, gustatzen zaiona berterik ez du egiten.

■ Nola hasi zineten besta hau antolatzen?

Iruritako gazteak 1993an elkartu ginen, herrian bizitza sozialik ez zegoela ikusten genuelako. Lokal bat behar genuen, eta dirua eskuratzeko kontzertu bat antolatu genuen La Polla Records eta Ehun Kilo taldeekin. Hurrengo urtean, 1994an, Garagardo Bestarekin hasi ginen. Helburua zen herriko jendea biltzea eta gazteendako lokal bat egitea, zeren herri honetan 800 bat biztanle gara eta soilik ostatu bat dago. Iruritan ez da deus, jende guzia joaten da Elizondora. Erran bezala, gazteendako lokal bat lortu nahi genuen hasieran. Baina bost urte daramatzagu lanean, eta ikusi dugu gazteok soilik ezin dugula ardura hori hartu. Elkartu ginen alkatearekin eta bertze kultur elkarrekin, eta ikusi genuen herrian behar zela kultur etxe bat. Nafarroako Gobernuak lagunduko digu, baina diru gehiago behar dugu.

■ Aurrekoetan dirua atera zenuten?

Lehendabiziko bi urteetan arrakasta izan genuen, baina gero joan da beheiti. Hirugarrenean irabazi genuen guti, laugarrenean galdu genuen eta ia z gastuak berdintzeko adina atera genuen. Estatuan badago festibal pilo bat; merkatua hautsi egin da, jendeak ez du sosik joateko alde batera eta bertzera. Eta, gainera, talde asko pasatu dira hemendik, urtero zortzi bat talde. Huajaloteak, SA, Platero y

Tu, Def Con Dos, Koma, Ktulu, edo UK-Subs bezalako taldeak pasatu dira hemendik.

■ Aurtengoa lasaiagoa atera zaizue musika motari dagokionez.

Bai, besta jende mota guzietan zabaldu nahi izan diegu, festibala multirraziala izatea. Bertze urteetan beharbada kaña handiagoa izateko bideratu genuen, eta aurten bertze zerbaitekin saiatu gara.

■ Zergatik garagardoaren inguruko besta bat?


1992an Juanito Meoki alkate zegoen eta jo zuen niregana eta bertze lagun baten gana herria eramaten laguntzeko. Ordura arte alkateak antolatzen zuen dena, eta gazteek ez zuten deus egiten. Gu hasi ginen bestak eta inauteriak antolatzen. Alkatez batzorde horretan bazegoen Antero Etxandi izeneko bat. Alpeetan ibilia zen eta beti kontatzen zigun Alpeetan lau metroko bazegoela garagardo besta bat kriston zerbeza pilarekin, prezio guzietan, eta jendeak hagitz ongi pasatzen zuela. Niri musika asko gustatzen zait eta halako nahasketa bat egitea bururatu zitzaigun. Musika eta garagardoa. Hori da behar dena, espektakulu apur bat.

■ Herritarrek nola ikusten dute horrelako besta bat?

Lehendabiziko urtean izuriturik zeuden, uste baitzuten etorriko zirela punkiak, txima luzeak eta drogazaleak, eta herria suntsituko zutela. Baina herria bete zen, ez zen deus gertatu, eta jende guzia arrunt pozik gelditu zen. Aurten herri osoa saiatu da hau aitzina ateratzen.

■ Aurreko urteetan ere denek lagundu zuten?

Hasierako bi urteetan



• JOSU SANTISTEBAN

«Bailara honetan ez da inoiz deus egoten edo antolatzen, eta dagoen aukera bakarrera etorri behar du jendeak»

arras ongi geunden gazte guziak, baina gero ohiko zurrumuruak sortu ziren, diruarekin gelditzen ginela eta antzekoak. Niri protagonismokeria egotzi didate. Baina nik gustuko dudalako egiten dut hau. Horregatik uste dut izan zirela azken hiru urteak kaskarragoak. Baina aurten, oso ongi moldatu gara. Ongi egin dugu aurten antolakuntza aldetik. Jende guzia lanerako prest dago. Duela hilabete batetik badugu zerrenda bat 90 lagunetakoa lan egiteko prest. Orai eguraldiari soilik diot beldurra.

■ Zaila da horrelako zerbait antolatzea?

Hasieran bai, arrunt zaila

egiten da. Baina daramagu sei urte honekin, eta orai da esan eta egin. Garagardo Besta egiteko eredu bat dugu, urtero erantzun behar dira galdera berdinak, eta etorriko diren izenak bertzerik ez dira aldatu behar. Aurten besta antolatzea ez da zaila izan, baina aurrekontua goiti joan da aurraren antzera, apustua egin dugulako. Ikusten genuen bertze urteetako aurrekontuarekin ez genuela ia etekinik ateratzen, eta datorren urtean hasi behar dugu lokala egiten, eta horiek dira berrogei milioi pezeta. Kartela izugarri ona da eta jendea etorriko da. Bailara honetan ez da inoiz deus egoten, eta da-

soslaia

Angel Biela Iruritan jaio zen, duela 27 urte. Margolaria da, baina bertzelako "lantxoak" ere egiten ditu. Biela musikaren inguruko guziaz arduratzen da. Antolaketa Batzordean bertze 9 lagun dira: Axun (garagardo kontuak), Iñaki Garate eta Txuma (kontu teknikoak), Ana, Itziar, Maika eta Ana Belen (publizitatea), Ines (baimenak), eta Iñaki Zabaleta (segurtasuna). Denetara, 125 lagun dira lanerako prest.

Zortzi taldek joko dute bihar Iruritako erreboteko plazan: Raimundo-Amador, Amparanoia, Buitraker, Rare Vocation, Boll, Ñako Goñi y Los Bluska Vidas, Radio Terror eta Komando Moriles. Hutsuneak txalapartaren soinuek beteko dituzte.

Iruritan 15en bat garagardo mota zerbitzatuko dituzte, merkeenak 100 pezetan eta garestienak, 450 pezetan. Sarrerak 2.500 pezeta balio du (100 libera). Kontzertuak 19:00etan hasiko dira. Doako aparkalekua eta kanpalekua paratu dute, gauzak erraztearren.

goen aukera bakarrera etorri behar du jendeak. Talde pilo bat badira, eta ezustekoa har dezake batek edo bertzek.

→ Asier Azpilikueta



Nafar Kronika

Pello Goñi

Bidaiatzea

Ezin ditut burutik kendu Lago Agrioko karrika lohi-tuak, indio zibilizatuek, petrolioko langileek, liskarzaleek eta prostitutez beteak, soldaduen presentziarik behar ez dutenak bidaiariari halako kezka edo egonezina sentiarazteko. Ez litzaidake gustatuko Ekuadorko oihanean bahitutako bizkaitarren lekuan egotea. Zinez. Nahiz eta Amazoniako alderdi hura, duela zenbait urte Labaka apezpikuaren heriotz latzaren lekuko izan zena, benetan zoragarria izan. Bidaiatzeko «bertutearen» ondorioak dira, Lizar-bek esan lukeen bezalaxe, ez baita Sanz gaizki mintzatzen den bakarra. Nafar indioak akabatzeko edozein baliabide erabil daiteke-eta, hitzen okertzea barne. Paris-Tumbuctu bidaiak egiten ari ginelarik zera aditu genuen: «Espainiaren handitasuna atzerritarrei etengabe izorrazten saiatzean datza», edo antzeko zerbait. Eta seguru asko hori esan zuenak espainiarren berezitasuna azpimarratu nahi izan zuen. Berlangatarren fabrikako esaldi pottoloa baino zerbait gehiago delakoan nago. Izan ere, telebista, erran nahi baita, Espainiakoa, publikoa, ofiziala, inpartziala ikusten dudanean, «Nodo» urrina sentitzen baitut gero eta argiago: Camachoren selekzioa; Atletismoko mundialak —giraldira faltsuak orbanduak—; Angliru, munduko mendaterik gogorrena; Cascos Julirekin; flamenkoaren gorakada; abeslari patriota; Paradaren zinema zaharkitua; gure legionario kementsuak karitate arreba bilakaturik. Egia esan, ez zait ja ere gustatzen estetika ideologiko hori. Francorekin batera lurperatu genuena. Edo hori uste genuen, bederen. Horrexegatikan, arrisku handia izanda ere, Cuyabenoko Parke Nazionalera joan nahiko nuke nik eta hantxe indio huaoraniekin galdu.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► Urdinabarbe:

Su ta gar Eibarko taldeak kontzertua eskainiko du bihar plazan, 23.00etatik aurrera.

► Barañain:

Dickers, Los Rosllis eta Jator taldeen kontzertua bihar, Sahats eskolan, 21.00etan.

BERTSOLARIAK

► Hazparne:

Igandean bertso zikiro jatea izanen da, 13:00etan, Sustrai Kolina, Amets Arzallus, Xumai Murua eta Eneritz Zabaleta bertsolarikin.

ANTZERKIA

► Uharte:

Phanta Rhei taldeak *Aberetariak* lana taularatuko du astelehenean, San Juan plazan, 11.30etan.

BESTELAKOAK

► Aranguren:

Bestak direla eta, gaur, herri bazkaria izanen da 14:30etan, eta dantzaldia Aska taldearen eskutik, gauerditik aurrera.

► Barañain:

Asteburu honetan bukatuko da gazte astea. Gaur kalejira eginen dute gaztetxetik 18:00etatik aitzina. Hanka-paluek, txistulariek, malabareek, dantzariak, txaranga eta joaldunek Barañaingo karririkak girotuko dituzte. 20:00etan, kontzertua eskainiko du Mr. Dixi Jazz Band taldeak, erabilera askoko aretoan.

Bihar, 12:00etan ginkana eginen dute, 13:00etan kalderete txapelketa eta, ondoren, herri bazkaria. Gazte astea igandean bukatuko da, arratsaldeko 6retan Harizti dantza taldeak eskainiko duen ikuskizunarekin.

► Iruñea:

Irailaren 20tik 24ra euskaldunendako xake txapelketa eginen dute Arrano Elkartearen (Redin kalea, 2). Partidak lau ordukoak izanen dira, eta arratsaldeko 17:00etan hasiko dira. Parte hartzeko nahi-

ko da 948-147066 telefonora deitzea (Joseba Otano) edo irailaren 20an txapelketa hasi baino 10 minutu lehenago agertzea. Txapelketa Nafarroako ELOrako baliagarria da Nafarroako Xake Federazioak erabaki duenez.

► Iruñea:

Ortzadar euskal folklore taldeak, 25. urteurrena ospatzearren, bazkaria eginen du irailaren 25ean Amaia Kirol Hirian. Txartelak salgai daude Xalbador liburudendan irailaren 21a arte.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



Non é leite o que mama o rapaz; é sangue.

Ez du haurrak dititik esnerik edoskitzen, odola baizik.